

Uxarten Bizkaiko sagardo denboraldia hasiko dute eguaztenean

Anboto 2015-01-20 16:30 [Herririk herri](#) [Zornotza](#)

11:30etik aurrera, Bizkaiko sagardo denboraldiari hasiera emango zaio era ofizialean, Zornotzako Uxarte sagardotegian egingo duten ekitaldiagaz. Ordezkarri politikoak eta pertsona ezagunak batuko dira lehen txotx hori babesteko.



Uxarte sagardotegia denboraldi hasieran. Argazkia: www.bizkaikosagardoa.com ataria | [Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

Jose Antonio Zamalloa Uxarte sagardotegiko arduradun eta Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko –hamar ekoizle batzen ditu– presindetearen arabera, aurtengo sagardoa “erraz edatekoa” da, eta “gorputz arinagoa” du. Aurtengo sagar uzta “garbia eta sana” dela ere nabarmendu du. Bizkaiko sagardo denboraldiak maitzera arte iraungo du, baina Uxarte urte osoko asteburuetan zabalik egoten dela gogoratu du.

Zabaldutik artikulua: [Twitter](#) [Facebook](#) [G+](#)

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

>>> [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)